



### ESKOLAKO OHARRAK

#### San Nikolas

Datorren ostegunean, abenduak 5, San Nikolas bezpera dela eta, urtero bezala kantatzera aterako gara Haur Hezkuntza osoa eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2.

maila. Gurasoak gurekin kantatzera etorri zaituzten gonbidatzen zaituztegu eta dena behar bezala joan dadin honako gomendio hauek luzatu nahi dizkizuegu: umeak irakasleen ardurapean daudenez, taldearekin batera joan behar dute; kantatzerako garaian, ikasleen atzean kokatu, maindireak zabaltzeko nahikoa espazio utziz eta isiltasuna mantendu, momentu hori errespetatzea oso garrantzitsua da. Beti bezala, argazkiak blogean jarriko ditugu hurrengo egunetan. Hasiera 10:45etan izango da eskolako aterpean.

Guraso Elkarteak ere, HH eta LHko lehenengo zikloko ikasle zein irakasleek kantuz alaituko dituzte gure herriko bazterrak, beraz gurekin parte hartzera gonbidatzen zaituzte, ANIMATU eta etorri guztiok ohitura polit honi segida ematera!



### NOTAS DE LA ESCUELA

#### NORMAS PARA SAN NICOLÁS

El próximo viernes, 5 de diciembre, todo el alumnado de Educación Infantil y primero y segundo de Educación Primaria saldrá a cantar como todos los años. Invitamos a las familias a participar en esta actividad, y queremos hacer las siguientes recomendaciones para que todo transcurra lo mejor posible: como el alumnado está a cargo del profesorado, es necesario que todos/as vayan en grupo. A la hora de cantar, es necesario colocarse respetando el grupo, y sobre todo, respetar el momento en el que cantan, manteniendo el silencio. Como siempre, las fotos las colgaremos la semana siguiente en nuestro blog. Esta actividad dará comienzo a las 10:45 en el patio de la escuela.

La Asociación de Madres y Padres, animamos a las familias a participar en esta actividad con el alumnado de Educación Infantil y primer ciclo de Educación Primaria.



### KANPOKO OHARRAK

#### Nik Oartzunen

Gaur arratsaldean, azaroak 29a, arratsaldeko 16:30etatik aurrera, herriko merkataritza txikia sustatzeko arratsaldeko 16:30etatik aurrera, festa txikia antolatu dute herriko plazan. Ginkana, txokolatada eta trikipoteoa edukiko dituzue Itturi Oartzungo Merkatarien Elkarteak antolatuta. Hurbildu eta gozatu!!!

### NOTAS EXTERNAS

#### Nik Oartzunen

Hoy a la tarde, 29 de noviembre, a partir de las 16:30 han organizado una fiesta para fomentar el consumo en los pequeños comercios del pueblo, el cual mejora la economía y el empleo. Habrá gincana, chocolatada y trikipoteo, organizado por Itturi, la asociación de comercios del pueblo. ¡¡¡Acercaos y disfrutad!!!



## XXXII. Prosa eta poesia lehiaketa. SARI-BANAKETA EGUNA

Oiartzungo ia ikasle guztiek parte hartzen duten lehiaketaren sari-banaketa, Txerri Egunean egin izan da, azken urte luzeetan. Aurten, IAZ BEZALA, Hitzen Lihoa egitasmoaren proposamenaren baitan, sariak banatzeko ekitaldiaren eguna abenduaren hasieran izango da, ABENDUAREN 4an, Xabier Leteren heriotzaren 9. urteurrenaren egunean, arratsaldeko 18:30ean, Udaletxeko Areto Nagusian.

### **Belaunaldien arteko kantaldia abenduak 5**

Abenduak 5 osteguna adin ezberdinetako herritarrak elkartuko gara Abaraxka ludotekan kantuan aritzeko. Soinuenea Herri musikaren txokoko kide den Itziar Navarro musikariaren laguntzarekin zahar eta gazteek musikaren doinuez gozatzeko aukera izango dugu. Lehengo eta oraingo kantak uztartu eta ikasiko ditugu bata bestearen jarraian.

Haziak egitasmoak indarrean jarri nahi du belaunaldi ezberdinen arteko transmisioa eta oraingo honetan bereziki alaitasun eta armoniaz beteriko dinamika batekin hain zuzen ere.

**Herria:** Oiartzun

**Lekua:** Abaraxka ludoteka

**Ordua:** 17:30tan

### **Yoga familian Abenduak 8**

Abenduak 8, igandea goizeko 11:00tan Oiartzungo Elorsoro Kiroldegan, familientzako yoga, kontzentrazio eta erlaxazio tailerra izango da. Oraingo honetan Dafne izango dugu gidari lanetan ariko den aditua.

Haur eta heldu izango gara elkarlanean yogak ematen dizkigun baliabideez ikasten eta gozaten. Betiko antzera, modu atsegina eta jostagarria hurbilduko gaitu Dafnek yogara, kontzentrazio eta erlaxaziora

HAZIAK egitasmoak garrantzia handia ematen dio orainaren jabe egiteari, norberaren barne mundua azaleratuz botere harremanen lanketa osoa garatzeko kontzientzia hartzeko prozesu gisa. Ekimen hau HAZIAK eta Abaraxka ludotekak elkarlanean antolatu dute, eta hezkuntza ez-formalaren eremuan kokatzen da.

**Herria:** Oiartzun

**Lekua:** Elorsoro Kiroldegia

**Ordua:** 11:00etatik 12:30era (10:45ean elkartuko gara sarreran eta denak elkarrekin sartuko gara barrura)

**Adina:** 5 urtetik gorakoentzat (haurrek heldu batekin etorri behar dute)

**Eraman beharrekoa:** Arropa arina eta tapatzeko manta bat.

**Oharra:** Izen ematea mugatua da, telefono honetara mezu bat bidali eta baieztapena jasoko da, 645 00 54 96

Informazio gehiago: [www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus) eta [www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es)

## XXXII. Prosa y poesía. REPARTO DE PREMIOS

La práctica totalidad del alumnado de Oiartzun toma parte en el concurso de prosa y poesía. Durante años la entrega de premios se ha realizado el día del cerdo pero tal y como se hizo el año pasado, dentro de Hitzen Lihoa, será el 4 de diciembre, en el noveno aniversario de la muerte de Xabier Lete, a las 18:30 en el Ayuntamiento.

### **Canto intergeneracional 5 de diciembre**

El 5 de diciembre, jueves, gente de diferentes culturas se reunirá para cantar. Con la colaboración de Itziar Navarro, representante del txoko de la música, Soinuenea. Cantaremos canciones de hoy y de ayer.

El proyecto Haziak quiere poner en marcha relaciones intergeneracionales con una actividad de armonía y alegría.

**Pueblo:** Oiartzun

**Lugar:** ludoteka

**Hora:** 17:30

### **Yoga en familia 8 de diciembre**

8 de diciembre, domingo, a las 11:00 de la mañana, en el polideportivo Elorsoro, habrá un taller de concentración y relajación. En esta ocasión la responsable de dirigir el taller será Dafne. Habrá tanto menores de edad como mayores disfrutando de esta actividad y como siempre nos acercará al yoga desde un punto de vista ameno.

El proyecto HAZIAK da mucha importancia a ser responsable del presenta, sacando el mundo interno de cada uno/a y siendo más responsable y consciente de las relaciones de poder. Esta actividad que se encuadra en la educación no formal, está organizada por la ludoteca y el proyecto HAZIAK.

**Pueblo:** Oiartzun

**Lugar:** Elorsoro

**Hora:** 11:00-12:30 (en la entrada las 10:45)

**Edad:** a partir de 5 años. ( los/las menores de edad deben ir acompañados/as por un/a adulto/a)

**Material que se debe traer:** ropa ligera y una manta.

**Nota:** enviad un mensaje a este número 645 00 54 96 para reservar plaza

Informazio gehiago: [www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus) eta [www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es)